

Apirilaren 28an

## 2. PAZKO IGANDEA, Pazko zortzigarrena

«*Jainkoaren Errukiaren*» igandea

### Agurra

Jesu Kristo Piztuaren grazia eta bakea izan bitez zuekin.

### Sarrerako oharpena

Jerusalemen orduan bezala, Jesus hil eta ondorengo egun eta asteetan bezala, gu ere hemen gara elkarrekin bilduta.

Gaur igandea da. Eta orduan bezala, berdin-bedin, gaur ere Jesus gure artean agertuko da. Hemen da, gure artean dugu: Bera mintzatuko zaigu, Bera emango zaigu ogi-ardotan. Guri, noski, apostoluei bezala, pozik eta alai egotea dagokigu. Apur bat erreparatuz gero, bere Espiritua gudan nabarituko dugu, eta ziur egon, maitasunezko eta bizitza berrizko notizia hau hots egitera bidaliak sentituko gara meza honetan.

### Bataio-urez zirtatzea

**Senideok: Eukaristia ospatzera goaz; Bataiokoan bat egin genuen era berezian Kristo Piztuarekin eta berak bildu gaitu gaur bere mahaian. Geure Bataioa oroitzuz bat egin dezagun Jainkoarekin.**

*Herria zirtatuko du apaizak elizan barrena ibiliz.*

*Bitartean kantu egokiren bat: ikus liburuxka honen 64. orrialdean.*

**Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala.**

R/. Amen.

**Erruki, Jauna.** R/. Erruki, Jauna.

**Kristo, erruki.** R/. Kristo, erruki.

**Erruki, Jauna.** R/. Erruki, Jauna.

### **Aintza zeruetan**

Bataioko uretan gizaki berri eginak izan diren guztiekin batera gora dezagun Jainko Aita-Semea-Espiritu Santua.

### **Otoitza**

**Betiereko errukiaren Jainko Jauna,  
Pazko-jaietan berritu egiten duzu zeure herriaren fedea;  
handi ezazu gugan Zuk emandako grazia,  
hobeki ikus dezagun nolako Bataioak garbitu gaituen,  
nolako Espirituak biziberritu eta nolako odolak erosi.  
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,  
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean  
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan.**

### **Hitzaren liturgiari oharpena**

Apostoluen inguruan sortutako elkartearen testigantza, aberasgarri dugu gaur senide elkartasunean bizitzeko. Jesus fedez onartzeak, egiazko bizia ematen digu.

### **Lehenengo irakurgaia** (Eg 4, 32-35)

Apostoluen Eginetatik

Sinestedunen taldeko guztiak bat ziren bihotzez eta gogoz. Eta inork ere ez zuen esaten, bere gauzak bereak zituenik; guztia guztiena zuten. Apostoluek kementsu ematen zuten Jesus Jaunaren piztueraren aitormena, eta guztiak oso ongi ikusiak ziren.

Ez zen behartsurik haien artean. Izan ere, lurrak edo etxeak zituztenek saldu egiten zituzten, eta haien saria ekarri eta apostoluen oinetan ipintzen zuten, eta handik ematen zitzaion bakoitzari behar zuena.

### Erantzun-salmoa (Sal/ 117, 2-4. 16bc-18. 22-24)



Israel etxeak hau esan beza: ‘

«Haren maitasuna betikoa.»

Aaron etxeak hau esan beza: ‘

«Haren maitasuna betikoa.»

Esan bezate Jaunaren beldur direnek:

«Haren maitasuna betikoa.» R/.

«Jaunaren eskuinak nau altxatu, ‘

Jaunaren eskuina bizkor da jokatu.»

Hil ez, baino bizi naiz egingo, ‘

Jaunaren eginak nik oihu egingo.

Zigortu nau Jaunak, zigortu,

baina ez nau heriotzaratu. R/.

Etzegileek baztertutako harria, ‘

berori gertatu da giltzarria.

Jaunak egin du hori, ‘

gure begien harrigarri.


Hau da Jaunak egin duen eguna,

gu pozteko eta alaitzeko eguna. R/.

**Bigarren irakurgaia** (1 Jn 5, 1-6)

San Joan Apostoluaren epistolatik

Senide maiteok: Jesus Mesias dela sinesten duen guztia Jainkoagandik jaio da, eta bizi-emailea maite duenak bizi-emaileagandik jaioa ere maite du. Honetan ezagutzen dugu, Jaungoikoaren seme-alabak maite ditugula: Jaungoikoa maite badugu eta Haren aginduak betetzen baditugu; hau da, izan ere, Jaungoikoa maitatzea: Haren aginduak betetzea. Eta Haren aginduak ez dira astunak. Jainkoagandik jaio den guztiak garaitzen baitu mundua; eta mundua garaitu duen garaipena hau da: gure sinesmena. Izan ere nor da mundua garaitzen duena, Jesus Jaungoikoaren Semea dela sinesten duena baizik? Hau da urez eta odolez etorri zena: Jesu Kristo. Ez urez bakarrik, urez eta odolez baizik: Espiritua da, honetaz aitormen egin duena, eta Espiritua egia da.

**Aleluia** (Jn 20, 29)

Ikusi nauzulako sinetsi al duzu? –dio Jaunak–: zorionekoak, ikusi gabe sinesten dutenak. R/.

**Ebanjelioa** (Jn 20, 19-31)**Homiliarako argibideak**

*Ez izan sinesgogor, sinestedun baizik*

Tomas apostolua ez zen asko fidatzen bere apostolu lagunekin (*Jn* 20,19-31). Maisua saltzen ikusiak zituen, euren burua salbatzeko. Tomasek berak ere gauza bera zuen egina. Horregatik zekien, ongi baino hobeto, zer zen giza bihotzak **traizio** egitea, norberaren intereserako. Agian, Jauna ikusi izanaren berri emateko interesa edukiko zuten bere ikaskideek. Horregatik ez da fio, eta sinesteko, Berpiztuaren esperientzia berak bizitzea exijituko du.

Piztueraren egunean, iluntzean, afaltokian zeudela, ikasleei agertua zen Jesus. Espirituaren dohaina emana zien, salbatuen komunitate egiten dituen, bekatu guztiak barkatuta dituztenena. Komunitate horrek **barkatzeko** edo barkatu gabe uzteko **gaitasuna** du. Halaxe hasten da Elizaren bizitza eta misioa. Jesusek **bere ikasleak bidaliko ditu**, Aitak Hura bidali zuen bezala. Ikasleek presente egingo dute Jauna, Hark Aita bezala. Berpiztuaren presentziak eraldatu egingo ditu ikasleak, bakez eta pozez beteko ditu, beldurra galduko dute.

Tomas apostolua ez zegoen haiekin. Elkartu eta ikaskideek bizitakoa kontatu ziotenean, ez zein sinetsi. Berak ere berpiztuarekin esperientzia zuzena edukitzea exijitu zuen, berpiztua **ikusi eta ukitu** nahi zuen. Berpiztua ezin da komunitatetik at aurkitu, ordea. Hala, hurrengo astean edukiko du aukera Tomasek, Jesus berriz ere bilduta dauden ikasleei agertzen zaienean. Hark sinesteko ezarritako baldintza betetzeko eskatuko dio Jesusek Tomas, baina apostoluak ez du beteko; aitzitik, bere Jaun eta Jainko aitortuko du berpiztua; agian, hori da Kristoren jainkotasunaren fedearen aitortzarik argiena.

Jesus ez zitzaion onez onean agertu Tomasi, bakarrik zegoenean. Elkartuta dagoenean bakarrik agertzen da berpiztua. Esperientzia pertsonala da fedea, noski, baina badu **dimentsio komunitario bat**. Horregatik, ez gaitu gure subjektibotasunean ixten; alderantziz, solasaldira, munduarekiko konpromisora zabaltzen gaitu. Eliz fedea

da beti. Elizak transmititu digu Berpiztuaren jatorrizko esperientzia, apostoluetan pertsonifikatuta, gutako bakoitza bere eliz komunitatean elkartuta asimilatzen saiatzen dena. Ez da posible norberaren subjektibotasunaren eta banakotasunaren neurrira egindako fedea, nork bere kasakoa.

Nahiz eta Jesusek berak Tomasen fedea ikustearekin lotzen duela eman, Jesusen hitzak egin du posible fede hori. Hitzak esku hartzen duen unean, banakako esperientziaren esparrutik irten eta komunitatearen eremuan sartzen gara, **fedea partekatuaren** eremuan. Zoriontsuak gu, ikusi gabe sinesten dugulako, gure bizitzan presente egin den Jaunaren hitzaren itsu-itsuan sinetsita. Une pribilegiatua da Eukaristia, Berpiztuarekin bakarka eta komunitatean elkartzeko, gure bizitza aldatu eta bere lekuko izatera bidaltzen baikaitu.

### Jainkoaren herriaren otoitza

Jaunaren piztuera santu eta bizi-emailearen pozez, gure gogobihotzak eraberriturik, egiogun otoitz Jaunari:

*Erantzuna:* **Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua!**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-ri ho - nen oi-hu - a.

- Kristori, bere piztueraz heriotza garaitu eta bekatua desegin duenari eska diezaiozun, kristau guztiak izan daitezela leialak Pazko gau santuan berritutako bataioko hitzekin. Egigun otoitz. R/.
- Kristori, bere piztueraz barkamena eta bakea eman digunari, eska diezaiozun, biziaren bidera itzuli direnek gorde ditzatela Aitaren errukiak itzuli dizkien dohainak. Egigun otoitz. R/.

—Kristori, bere piztueraz herri guztiak poztu, bere dohainez aberastu eta gure bihotzak alaitasunez bete dituenari, eska diezaiogun berri dezala sufritzen dutenen eta negarrez daudenen itxaropena. Egigun otoitz. R/.

—Kristori, bere piztueraz emakumeei poza eman zienari eta emakumeen bidez apostoluei eta hauen bidez mundu guztiari zabaldu zienari, eska diezaiogun, gaur, hemen, bere garaipena ospatzen dugunon alde. Egigun otoitz. R/.

Iganderoko pazkoan salbamenaren harrigarriak biziartzten dizkiguzun gure Jainkoa, entzun Zure herriaren otoitzak eta egizu asma dezagula beti Kristo senideen artean aurkitzen, haiekin batera Kristo Zure Semearen testigantza eman dezagun. Errege bizi baita, hilezkor eta aintzatsu, gizaldi eta gizaldietan.

### **Eukaristiaren liturgiari oharpena**

Lehenengo Pazko hartan bezala, Jesus hemen dugu gaur ere. Lehen bere hitzean eman zaigu; orain, ogi-ardotan. Gure bihotzen hondohondotik eskertu dezagun Aita Jainkoa.

*Ikus Eukaristi Otoitzerako eskari bereziak 61. eta 63. orrialdeetan*

### **Jaunartze-ondorengo otoitza**

**Jainko ahalguztiduna, iguzu,  
pazko-sakramentuetan hartu dugun graziak  
iraun dezala beti gure bihotzetan.  
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.**

**Bedeinkapen nagusia** (*Ikus liburuxka honetako 53. orrialdean*)